

Hernanik kronika

TOKIKOM

2014ko urtarrilaren 25a, larunbata::: 4.624 zk. ::: www.kronika.net

FUTBOLA

Real Union hartuko du Hernanik gaur, Zubipen /7



AKORDEOI KONTZERTU ZIKLOA

Goi mailako hiru soinujole gaur, Milagrosan

Marta Cubas, Maria Zubimendi eta Narciso Jimenezek eskainiko dute kontzertua Milagrosan, 19:00etan hasita.

HAMAICA abesti eskainiko dituzte gaur, hiru soinujoleren artean, Milagrosan. Hauspoz Euskal Herriko akordeoi elkarteak antolatu du kontzertu zikloa eta goi mailako hiru akordeoijole gonbidatu ditu Hernanira: Marta Cubas, Maria Zubimendi eta Narciso Jimenez. Gazteak dira hiruak, baina oihartzun haundia izaten ari direnak. Aurreneko biek hainbat lehiaketetan hartu izan dute parte, horietako asko irabaziz; eta Narciso Jimenez goi mailako ikasketak egiten ari da egun, Musikenen. Kontzertua Milagrosako kaperan, gaur, 19:00etatik aurrera. ||

❖ ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

Aurkezpena gaur, Biterin

Euskal Herri mailan jarri dute martxan Eskubide sozialen karta eta Hernanin ere sortu da taldea. Gaur aurkeztuko dute Biterin, 11:30etan. /2

❖ GIBELALDE

Bazkideak egiteko kanpaina martxan, gaurtik

Gibelalde auzo elkarteak bazkideak egiteko kanpaina jarri du martxan, eta otsaila bitartean luzatuko da. Gaur Lizeaga taberna parean izango dira, eguerdiko 12:30etatik 14:00etara. /2

❖ DYA

Sorosle izateko ikastaroa, otsailean zehar

DYAk ikastaroa antolatu du Hernanin, sorosle eta lehen sorospen titulua ateratzeko balioko duena. Otsailean zehar emango dute, eta 3 astekoa izango da. Parte hartzeko izena eman behar da, aldez aurretik. /2

GAUR KRONIKAN

Errugbia

Santboiana-Hernani, bihar /6

Laburrak /2

Kirolak: waterpolo, esku pelota, erremontea... /6-7

Eskelak /7

Ipuin kontaketa:
urte guztiko saioak /8



Katxarraza ikasle taldea, Harremonak egitasmoko arduradunak aldamenean dituztela.

Bost urte Institutuan, tratu onen aldeko bidean

HARREMONAK izeneko saioak ematen hasi zirela bost urte badira Hernani BHI Institutuan, eta emaitzarekin gustora dira arduradunak. Berdintasun Sailak sustatzen ditu saioak, eta gaur egun ikastetxe osoa inplikatzeko ari da, irakasleak, ikasleak, eta orain gurasoei ere saioa eskainiko diete./3



ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

Hernaniko taldea aurkeztuko dute gaur, Biterin

Euskubide sozialen karta Euskal Herri mailan jarri dute martxan eta Hernanin talde propioa sortu da, hori bultzatzeko. Aurkezpena 11:30etan egingo dute Biterin, eta herritarrei azaltzeko deia egin diete.

ESKUBIDE sozialen karta ekimena martxan da Euskal Herri osoan, eta Hernanin ere sortu da talde bat, honen harira lanean ari dena. Gaur dute aurkezpena, Biteri kultur etxean, goizeko 11:30etan. Taldearen berri eman, eta

ekimenaren nondik norakoak azalduko dituzte bertan. Haurrentzako dinamika ere, antolatu dituzte.

Konponbide bateratua bilatzea, helburu

Eskubide sozialen kartaren

«Ekimen honek zentzua du, bakarrik, bide honetan gu guztiok bagaude»

helburuetako bat da, konponbide bateratua ematea gaur egungo krisi egoera desberdinei. Martxan jarri duten eragileek diote, gauzak beste modu batean egin daitezkeela eta egin beharko litezkeela.

Herritar guztiei deia

Hernaniko taldea martxan da eta ateak zabalik ditu batu nahi duten guztientzat. Herritarrei egindako gonbitean, hala diote: «bide honetan, gu guztiok egoteak du zentzua». ■

GIBELALDE AUZO ELKARTEA

Bazkidetza kanpaina martxan, gaur eta datozen egunetan

Victor Hugo kalean egongo dira gaur, Lizeaga tabernaren parean, eguerdiko 12:30etatik 14:00etara.

EDOZEIN elkartek bezala, Lizeagako Gibelalde auzo elkartek bazkideak behar ditu urte osoko funtzionamendua errete aldera. Bazkidetza kanpaina jarri dute martxan, gaur hasi eta datozen egunetara luzatuko dena. Kanpainarekin bi helburu bete nahi dituzte: batetik, bazkide berriak egitea; eta bestetik, joan den urtean egin ziren haiek, bazkidetza berrestea. Orduetegi

Zazpi hitzordu jarri dituzte, gehienak, elkaratearen lokalean.

eta leku desberdinetan jarri dituzte hitzorduak, guztiak izan dezaten bazkide egiteko aukera. Aurreneko zita gaur jarri dute: Victor Hugoko Lizeaga taberna parean egongo dira, eguerdiko 12:30etatik 14:00etara.

Zita gehiago, datozen egunetan
Larramendi kaleko 11garren zenbakiko lokalean izango dira hitzordu gehienak, 19:30etatik 20:30etara: urtarrilaren 28an, eta otsailaren 4, 11, 18 eta 25ean. Bestalde, datorren larunbatean, otsailaren 1ean, Aitan Etxe eta Pacheco taberna parean egongo dira, eguerdiko 12:30etatik 14:00etara. ■

DYA

Sorospen titulua ateratzeko ikastaroa antolatu dute otsailean

Otsailaren 3tik 21era emango dute ikastaroa Inmakulada ikastetxean. Prezioa: 110 euro. Izena eman behar da.

SOROSLE eta lehen sorospen ikastaroa antolatu du DYA Gipuzkoak Hernanin. Hiru asteko ikastaroa izango da, eta datorren hilabetean emango dute guztira: otsailaren 3tik 21era. Astelehenetik ostiralera izango dira saioak, Inmakulada ikastetxean, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

Ez da beharrezkoa oinarritzko ezagupenik izatea

Ikastaroa izaki, aurretik ezagupen basikorik izan beharrik ez dagoela azaldu

dute antolatzaileek.

Ikastaroan erakutsiko dute, eguneroko bizitzan aurki ditzakegun arrisku egoerei aurre nola egin: bihotz eta birika suspertzea, zauriak, hausdurak, erredurak... Ezagupen arruntak izango dira, baina momentu jakin batean laguntza haundia eman dezaketenak. Teoria eta praktika tartekatuko dira, ikastaroan.

Frogak gainditzeko dituenak, titulua

Ikastaroa bukatzean, frogabat egingo zaie ikasleei, eta

gainditzeko dutenak lortuko dute DYA Gipuzkoak ematen duen titulua.

Matrikula eta izen ematea

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek, edo informazio gehiago behar dutenek telefono bidez jarri behar dute DYArekin harremanetan: 943 46 46 22. Gogoratu dute ikasle kopurua mugatua izango dela, emango duten ikastaroaren kalitatea bermatu nahi baitute.

Ikastaroaren prezioa, matrikula, 110 eurokoa da. ■

❖ ZINEA

‘Blue Jasmine’ eta ‘Turbo’ pelikulak, asteburuan

Biteriko zine sesioan bi pelikula jarriko dituzte asteburu honetan ere.

12 urtetik gorakoentzat *Blue Jasmine* izango da ikusgai: gaur 19:30etan eta 22:30etan, eta bihar 19:30etan. Adin guztietarako saioan, *Turbo* pelikula jarriko dute; gaur eta bihar, 16:30etan. ■

❖ EAJ-H11

Bilera gaur, Antziolako bizilagunekin

EAJ eta H11 alderdiak bilerak egingo dituzte Hernaniko auzoetan, bizilagunen iritzia jakin nahi baitute: Udalaren gestioaren inguruan, zer aldatuko luketen, zein diren beharrak... Aurreneko bilera gaur izango da, Antzian, bertako bizilagunen egoitzan; 10:30etatik 12:30etara. ■

❖ GAZTE TXOKOA

Errugbi partidua ikustera gaur, eta futbolen txapelketa bihar

Gazte Txokoak asteburu honetarako aurreikusita zituen ekintzak aldatu egin ditu. Gaur errugbi partidua ikustera gerturatuko dira Landarera. 16:00etan joango dira, Senior B mailako partidua ikustera: Hernani-Rioja. Bihar berriz, futbolen txapelketa antolatu dute, 17:30etan. ■

❖ KIROLDEGIA

Uretan jolasean aritzeko saioa, bihar

Etxeko txikiak eta ez hain txikiak uretan une atsegina pasatzeko aukera izango dute bihar Kiroldegiko igerilekuan. Ur ludoteka antolatu du Udalak goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:00etara. ■

Igerilekua itxita, eguerditik aurrera

Waterpolo partidua direla eta, igerilekua itxita egongo da bihar, eguerdiko 12:00etatik aurrera. ■

❖ KALERATZEAK STOP

Txistorjatea, Trintxerpeko kaltetuei laguntzeko

Trintxerpeko kaltetuei laguntzeko asmotan txistor jatea antolatu du Hernaniko Kaleratzeak Stop taldeak. Datorren igandean izango da, hilak 2, Plaza Berrin; goizeko 11:30etatik eguerdiko 14:00etara. ■

❖ ASTIGARRAGA

Yoga klaseak probatzeko aukera, debalde

Arik Terapia Zentroak yoga klaseak debalde probatzeko aukera jarri du Astigarragan. Datorren astean, Hatha Yoga ate ireki jardunaldia antolatu dituzte, asteartean eta ostegunean, 19:00etatik 20:15etara. Zentroa Kale Nagusiko 16garren zenbakian dago eta izena emateko telefonoa da: 943 50 66 72. ■

HARREMONAK EGITASMOA



Berdintasunaren alde hainbat ekimen egin izan dituzte Hernani BHI Institutuan. Argazkian, horietako bat.

Harremonak, tratu onean oinarritutako saioak Hernani BHI Institutuan

● Bost ikasturte daramazki Harremonak egitasmoak Hernani BHI Institutuan, helburu hauekin: harremanak hobetzea, tratu onak sustatzea, eta hezkidetzaz zein sexuen heziketa lantzea. ● Ikasleekin aritzen dira, baina irakasleekin ere saioak egin dituzte. Gurasoei zuzenduta ere egin nahi dituzte saioak, datorren asteazkenean.

TRATU txarrei aurre egiteko modurik onena tratu onak bultzatzea da. Ideia horretatik abiatu zen funtsean Harremonak egitasmoa, *harreman onak* sustatzeko egitasmoa, eta Hernani BHI Institutuan bost ikasturte daramazki dagoneko. DBH 2,3,4 mailatan eta Batxilergoan egiten dituzte saioak, eta irakasleekin ere urtero egiten dute saioen bat; aurten gurasoeekin ere egin nahi dute saio bat.

Hain justu, ikasleen gurasoentzako saio monografikoa datorren asteazkenean egingo dute, 17:30etan, Santa Barbara eraikinean, eta guraso guztiei gonbitea luzatu diete bertara azaltzeko.

Geure burua errespetatzetik besteak errespetatzera
Hernaniko Udal Berdintasun Sailak sustatutako egitasmoa da, eta Arremanitz Kooperatibak

tibak ematen ditu saioak. Edurne Mendizabal Tolosa, Ibon Arrizabalaga de Mingo eta Asier Baglietto Gabilondo dira egitasmoaren ardura daukatenak. Mendizabalek Kronikari adierazi dionez, ezezkotan oinarritutako mezuetatik alde egin nahi izan dute, eta mezu positiboetan oinarritutako saioak egiten dituzte. «Tratu onak sustatzea da helburua. Lehenengo gure burua errespetatzetik hasi, ingurua, laguna, herria dena. Bestea bere kasa etortzen da. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko eskatu ziguten saio hauekin hasteko, eta guk enfokatu hori eman nahi izan diogu».

Harremonak egitasmoak hiru helburu ditu, oinarri oinarrian: elkarren arteko harremanak hobetzea, tratu onak sustatzea eta hezkidetzaz zein sexuen heziketa lantzea.

GURASOENTZAT SAIDAK:

Ikasleen gurasoentzako saio bat egingo dute datorren asteazkenean, 17:30etan, Santa Barbara eraikinean.

LAGUNTZA, HARREMONAK BIDEAKO

Urteotan gelan grabatutako irudiekin bideo bat prestatu dute, eta ikasle guztien gurasoen baimen idatzia behar dute publikatzeko. Eskatu dute, mesedez etxetik bidali dituzten gutunak sinatzeko.

Berdintasuna, edertasun ereduak, sexualitatea...

Berez, 6-8 orduko saioak izaten dira, eta gai konkretu asko lantzen dituzte saioetan, baina gai orokor batzuren inguruan aritzen dira. Hasieran, DBH 2 mailan, parekidetasunaren inguruan aritzen dira, edo berdintasunaren inguruan. Gizon eta emakume, etxeko lanak, eta abar. Edertasun ereduak lantzen dira batez ere DBH3n, sexismoa eta abar. Sexualitatea norberari begira eta harremanei begira lantzen dira DBH 4 eta Batxilergoan.

Klase horien beharraz galdetuta, Mendizabalek dio, adibidez, sexualitateari buruz gaur egun informazioa bada-goela, baina beste mota bateko hezkuntza behar dela. «Mezuak txarrak dira orokorrean, eta bildurrez bezala bizi ditugu gauzak. Zer egiten dugun gaizki, ze desastreak garen...

ez gustora sentitzeko mezuak dira. Tratu onean berriz, ez gaude entrenatuak, eta gu horretan saiatzen gara. Plazerraren kultura oso interesgarria da, goxo, xume eta ondo bizitzeko».

‘Katxarraza’ ikasleen taldea
Harremonak egitasmoetatik sortu da Katxarraza taldea, Hernani BHI Institutuan. Gelaz kanpo ere beharra ikusten zuten saio horiekin jarraitzeko, eta ikasle talde batek sortu zuen Katxarraza taldea. «Hainbat gairi buruz bestela ez dugu hitz egiten, eta horretarako sortu genuen taldea. Gure artean bildu, eta gai horiei buruz hitz egin...». Institutuan bertan egitasmoak antolatuta eta kanpoan egindakoetan parte hartu dute besteak beste. Orain ilusioa daukate gazteagoak ere taldera hurbiltzeko, taldeak jarraipena izan dezan. ■

Hasi dira aldaketak Karabelen

Hainbat eraikin bota izanak erraztu egiten du Karabel auzoaren berrantolaketa hastea eta zubi berria egiteko lanak hastea.

2013 urte bukaeran hainbat eraikin bota ziren eta horiekin martxan jarri zen Karabel auzoan aldaketa garrantzitsu eta sakonak ekarriko dituen lanen egutegia.

Zubi berria egiteko lanak hasi dira eta ibaiaren bi ertzetako zimen-
duak jartzen ari dira. Zimendu horiek zubi berriaren plataforma 11,40 metroko kotan mantenduko dute. Plataforma horrek 51,5 metro izango ditu argitan eta inguruan eraikiko da, behin bukatu ostean, Urumea ibaiaren gainean jarri dadin. Prozesu hau aurreikusten da 2014ko apirilaren erdirako bukatzea. Data horretatik aurrera, 2014ko uztailaren bukaera bitarte, hau da, zubi berria trafikora irekitzen den arte, obra zibil hau buka-

metroko kotatik gora eraikiko da eta barrera gisa funtzionatuko du Karabelen hegoaldean, Urumea ibaiak gainezka egiten badu ere. Bide berri bat sortuko da eta Olaeta Plazan, trenbidearekin paralelo doan bidearen jarraipena izango

Lezoia eta bide berria 10 metroko kotatik gora.

da. Eraikin berriko garajeen sarre-
ran bukatuko da. Sarrera hau 11,26 metroko kotan egongo da.

Karabel Berriko bide-antolaketa-
ren ardatza **errotonda berria** izan-
go da. Errotonda hau auzoaren
sarreran egingo da zubi berriare-
kin, eta zubiaren altuera berean
egongo da. Errotondaren bidez, tra-
fikoa auzoaren kanpotik bideratu-
ko da eta auzora sartu beharrik ez
da izango, bizilagunen kasua ez
bada. Beste bide berri bat ere egin-
go da errotonda berria eta Landare
lotuz, Aingura kalearen bidez.


Bide berri hori **lezoia**ren **gainean**
(**lurrezko horma**) joango da. Lezoia
egingo da Urumea ibaiaren uhol-
deez babesteko, Karabelen ipar-
ekialdetik. Bide honek lotuko ditu
errotonda berriaren sarrera, 11
metroko kotan egongo dena, eta
Landareko sarrera, 10,30 metroko
kotan egongo dena. Beraz, guztia
10,30 metroko altueratik gora
egongo da.

Lurrezko lezoia egin aurretik, eki-
pamendu bat jarriko da, nahiz eta
ez ikusi, garrantzi haundikoa izan-
go dena auzoaren ongizaterako:
ekaitzen tankea. Honen bidez, euri
urak behar bezala kudeatzeko
aukera izango da eta ur horiek
ibaira bideratuko dira, urak gainez-
ka eginez gero, ez dadin estola-
zuloetatik itzuli.

*Karabel Berri: babes
ofizialeko 78 etxebizitza,
99 libre kontzertatuak eta
15 libreak.*

tzeko azken ukituak emango dira
eta ura, gasa, argia eta komunika-
zio zerbitzu garrantzitsuak desbi-
deratuko dira, zubi zaharretik
joango baitira ordura arte. Azpiegitura garrantzitsu honen
osagari bezala, Akarregi zonako
errotondara doan bidea moldatuko
da, eta errotonda berri bat egingo
da Karabel aldean.

Ekintza hauekin batera, **Karabel
Berri urbanizatzeko** lanak jarriko
dira martxan. 186 etxebizitza berri
izango ditu auzoak. Hasteko, babes
ofizialeko 72 etxebizitzaz osatuta-
ko blokea egingo dute, eta jarraian,
beste bloke bat, 57 etxebizitza libre
kontzertatuekin. Hirugarren bloke
batekin bukatuko dute bertan 42
etxebizitza libre kontzertatu eta 15
etxebizitza libre egongo dira. Urbanizazio hau guztia 11,20



www.oraune.com

943 445630

etxe onenak


ORALINE

ETXEBIZITZA

2 logela ego
kon

178

KARABEL Berri



1 Zubi berria

2 Errotonda berria

KARABEL Berri

3.1 Garajeetara sartzeko bidea

3.2 BOE Babes Ofizialeko Etxebizitzak

3.3 Libre kontzertatuak

3.4 Libre kontzertatuak eta libreak

4 Lurrezko lezoia Bide berria

5 Ekaitzen tankea

6 Parking berria

7 Kirol kantxa

Karabelen 186 etxebizitza berri egiteak, egungo parkin probisionala kentzea eragingo du. **Kaleko parkin** berri bat egingo da 200 plaza inguru izango dituen. Parkin hau ibaia, lezoi gainetik Landarera doan bide berria eta Zubipe futbol zelaiaren artean egingo da. Egungo **kirol kantxa** lekuz aldatuko dute. Parkin berriaren eta sarrerako errotondaren artean jarriko dute.

Karabelek datozen 4 urteetan izango duen transformazioak auzoaren fisionomia aldatuko du. Sarbide berriak eta trafikoaren berrantolaketak, auzoa bizileku egokiagoa egingo dute. Egungo bidegorri sarea osatuko da, errotonda berriaren bidez Portu auzo aldera eta zubi berriaren bidez Akarregi aldera. Aisialdirako gune gehiago ere izango dira. Plaza berri bat egingo dute Karabel Berrin umeentzako jolasekin. Hori egungo Olaeta plazari gehituko zaio.

Aldaketa nagusia Karabelen, segurtasun aldetik egingo da.

Dudarik gabe, aldaketa nagusia Karabelen, segurtasunean egingo da. Zubi berria, garbia eta pilastrarik gabekoa izango da eta "presa" efektua saihestuko da, gaur egungo zubiak eragiten duena Urumeako urak hazten direnean. Karabel Berriko urbanizazio berriak hegoaldeko, 11,20 metroko kotan egongo denak, barrera bat izango du errotonda berriarekin eta Landarera doan bide berriarekin, biak 10,30 metro eta 11 metroko kotan egongo direnak. Barrera honek auzoa babestuko du Urumea ibaiaren uholdeen aurrean; auzoan ura sartzeko saihestuko da.

Zentzu berean, prezipitazio garrantzitsuen aurrean, funtsezko ekipamendua izango da ekaitzen tankea. Azpiegitura honek aukera emango du modu eraginkorrean kudeatzeko Karabelen biltzen diren euri urak. Ohiko funtzionamenduan, euri urak bilduko ditu eta Urumea ibaian hustuko ditu. Ibaia hazita doan kasuetan, uhate bidezko sistema automatiko batek saihestuko du urak berriz auzora itzultzea saneamendu sarea bidez. Egoera honetan geratuko da agerian ze garrantzitsua den ekaitzen tankea, non euri urak bildu eta ibaira bideratuko diren modu eraginkor eta seguruan. II

BIZITZA KONTZERTATUAK

egongela, sukaldea, komuna, terraza handiak

78.000€ tik
193.000€ ra

3 logela egongela, sukaldea, 2 komun, terraza handiak

224.000€ tik
246.500€ ra

ERRUGBIA - OHOREZKO MAILA

Aldea haunditzeko aukera, bihar, Santboianaren zelaian

Hilabete eta erdi ligako partidurik gabe, eta taldeek atsedean hartuta ekingo diote berriz ere lehiari, bihartik aurrera.

‘ERRALDOIA lo’ dagoela aprobetxatuta, Hernanik bihar aldea haunditzeko aprobetxatu nahi du, Santboiana talde haundiaren kontra. Katalanek talde bikaina eta denboraldi kaxkarra darimakite. Hernaniarren atzetik dijoaz, azkenaurreko postuan, bost puntu gutxiagorekin eta bi partidu bakarrik irabazita. Hernaniarrek berriz, inork espero ez zuela, lan haundiak eman dizkie talde gogor askori, eta 4 partidu irabaziak ditu.

Biharko partidua atsedean hartuta hasiko dute, hilabete eta erdian ligako partidurik ez baitute izan. Bihartik aurrera berriz, beste hamar partidu jokatuko dituzte liga bukatu arte. Garrantzia haundia du neurketak, kontrario zuzenen artean jokatzeko baitute. Partidua, Sant Boi herriko Baldiri Aleu zelaian, 12:00etatik aurrera.

Iaz bigarren, aurten azken-bigarren

Gauzei nondik begiratzen zaien, ezberdin ikusten omen dira. Santboianak iaz bigarren postuan bukatu zuen liga, eta aurten ere halatsu dijoaz, baina behetik hasita. Ez dute iazko jokorik, eta bururik altxa ezinda dabilta. Jokalari batzuk aldegin, beste batzuk lesionatuta... egoerari buelta emateko bi fitxaje egin dituzte, eta bat bihar ikusi ahal izango dena: Matenga Baker gaztea, Zeelanda Berrikoa, hirugarren lerrokoa baina erdilari bezala jokatu duena. Gauzak gaizki hasi arren, ez dago etsitzeko Llobregateko taldea.

Joaneko partiduan, Hernanik garaile 29-23

Landaren sorpresa eman zuen Hernanik liga hasieran, Santboiana haundiari 29-23 irabazita. Orduan pizkorrago ibili ziren hernaniarrak, eta joko klase guztietan nagusitu



Denboraldi erdira iritsita, bost talde daude sailkapeneko azken postuetan borrokan.

Joaneko partiduan, Landaren 29-23 irabazi zion Hernanik Llobregateko taldeari.

Jokoan gehiago izan ziren eta eskura zituen aukera aprobetxatu zituen.

ziren. Azkarrago mugitu zuten jokoa, eta ezustean harra-

patu zituzten kataluniarrak. Bihar ere puntu-bila dijoa Hernani. Zuzeneko aurkariari aldea kentzea garrantzitsua da, liga bukaera zailari indarrez ekiteko. Lan horretan, ordea, faltako ditu jokalari batzuk: Igor Genua, selezioarekin ari delako, eta beste batzuk lesionatuta daudelako.

Hamar partidu falta dira liga bukatzeko, eta Hernani 9garren dago. Oraingo partidu guztiak hil edo bizikoak dira ligako borrokarako. ■

Sailkapena

1	Bathco Indep. RC	46
2	VRAC Quesos	46
3	Hermi El Salvador	44
4	Rugby At. de Madrid	39
5	CR Compl. Cisneros	36
6	Ampo Ordizia	34
7	Getxo Artea RT	34
8	Bizkaia Gernika RT	24
9	Hernani CRE	21
10	Blusens Univ. Vigo	18
11	UE Santboiana	16
12	Ciencias Cajasol	15

◆ SASKIBALDIA

Arerio gogorra gaur Hernanik: Atletiko San Sebastian

Ligako defentsarik onena duen taldea izango du gaur Hernanik aurrean: Atletiko San Sebastian. Hernanik duen guztia eman beharko du, neurketa aurrera atera nahi badu. Partidua kiroldegian jokatu da, arratsaldeko 16:45etan. ■

◆ WATERPOLDIA

Neskek eta mutilek Maristas aurkari, bihar

Neska eta mutilen waterpolo taldeek asteburuan jokatu dute Hernanin. Biek Maristas taldea izango dute aurrean: neskek 12:30etan eta mutilek 13:30etan. ■

◆ BOLA

Binakako txapelketako aurreneko tiraldia bihar, Ereñotzun

Taldeakako bola txapelketa bukatuta, inguruko bolari onenek Ereñotzun dute hitzordua bihar, bertan hasten baita Binakako Txapelketa. Aurreneko tiraldia izango dute jokoan, goiz eta arratsalde: 10:00-11:30 eta 16:30-17:30. ■

◆ PALA

Umeentzako ikastaroan, izen ematea

Pala ikastaroa antolatu dute umeentzako otsailean, astearte eta ostegunetan. Izena emateko 625 033 314 telefonora deitu behar da edo frontoira azaldu, astelehen edo asteazkenetan, 20:00etan. Umearen datuak ere bidali behar dira hernanikopalistak@gmail.com helbidera. ■

◆ SAGAR LASTERRA

Interneten dagoeneko eman liteke izena

Ia bederatzi kilometro izango ditu aurten ere, Hernaniko sagardotegietatik barrena egiten den lasterketak; Sagar Lasterrak. Urtarrilaren 22an izango da, goizeko 11:00etan hasita. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute aldezturik edo egunean bertan. Aurretik eman nahi dutenek zabalik dute epea interneten, www.kirolprobak.com helbidean. ■

FUTBOLA - ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

Urruti dagoela dirudi, baina lau puntura dago Real Union

Real Union 5garren dihoa eta Hernani 13garren, baina bien artean lau punturen aldea dago. Gaur jokatuko dute, 16:30etan Zubipen.

JOAN den astean liderrari gauzak estu jarri zizkion Hernanik, baina galdu egin zuen azkenean. Dena dela, taldea indarrean da, joku puntu oso onarekin, eta ez dago inori barkatzeko. Real Unionen kontra jokatuko dute gaur Ion Zabaletaren mutilek. Irundararak lau puntura daude, berez sailkapenean urruti daudela dirudien arren. Talde bat bosgarren postuan dago, eta beste 13garren.

Gaur irabaziz gero, sailkapenean salto polita egingo luke Hernanik. Betiko orduan jokatu du, Zubipen, bere jarraitzaileen aurrean, eta oraintxe da garaia taldeari bultzada emateko. Liga hasiera trixte xamarra egin zuen Hernanik, baina bere kaxa buelta eman dio, eta orain beste itxura, irudi, eta joko batekin dago taldea. Gaur ere horixe demostratzen atera



Hernanik salto haundia egin lezake gaur irabazita.

dira zelaira txuriberdeak; ez dela kasualitatea azken partidetako emaitzak lortzea.

Hernani eta Real Union parez pare gaur, 16:30etatik aurrera, Zubipen. II

◆ ESKU PELOTA

Finalerako pasea ziurtatzeko irabazi beharra dute gaur Urkizu eta Altunak

Euskal Ligako partidua jokatu dute gaur Urkizu eta Altuna hernanierrek, sub 22 mailan. Partidu garrantzitsua dute, irabazi beharra baitute, finalerako pasea konplikatu nahi ez badute. Huarteren kontra jokatu dute, Huarten bertan, 11:00etan hasita.

Bestetik, infantil mailako bi partidu ere aipatzekoak dira. Gipuzkoako txapelketan aurrera jarraitu nahi badute, irabazi beste biderik ez dute Gorostidi eta Zugastik, eta Arizmendi eta Insaustik. Aurrera Saiazen kontra jokatu dute biek; aurrenekoek Bidegoienen, 16:00etan; eta Hernanin besteek, 15:30etan. II

◆ ERREMONTA

Barrenetxeak Matxin IIIarekin jokatu du gaur, Juaristi eta Olazarren kontra

Erremonte jaialdia antolatu dute gaur 16:00etan Galarretan. Hirugarren partiduan Endika Barrenetxea hernaniarrak jokatu du. Matxin IIIa izango du bikote, eta aurrean, Juaristi eta Olazar. II

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatu dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† FRANCISCO MATELLANES CALVO

- Goian Bego -

Besarkada haundi bat
etxeko guztiei

AURELIREN LAGUNAK

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 25ean



KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				ESKU PELOTA - Udaberri torneoak			
Mat. Erag. Oñ.	Hernani-Real Union	Zubipen	Gaur 16:30	Kadeteak	Zumai-Pagola-Besarte	Getarian	Gaur 16:00 (3)
Erag. Euskal Liga	Bigoibar-Hernani	Mintzetan	Bihar 12:30	Kadeteak	Ladana-Urrozola/Zestoa	Hernanin	Gaur 15:30 (1)
Mat. Erag. Gic.	Lengokoa-Hernani	Cesar Benito	Gaur 13:30	Seniorak	Etxebarri-Arrikoleta/Eibar	Hernanin	Gaur 15:30 (6)
Jub. Mat. Eri.	Antiguako-Hernani	Berlan	Gaur 15:30	ESKU PELOTA - Euskal Herriko Txapelketa			
Jub. Mat. Oñ.	Hernani-Ostadar	Zubipen	Gaur 18:30	Sub22	Huarte/Urkizu-Altuna	Huarten	Gaur 11:00
Jub. Erag. Eri.	Afiora-Hernani	Rozalen	Gaur 19:30	ESKU PELOTA - Gipuzkoako Binalako Txapelketa			
Kad. Mat. Oñ.	Lengokoa-Hernani	Cesar Benito	Bihar 12:45	Seniorak	Lopez-Etxebarri/Urdal	Irurri	Gaur 16:00 (1)
Kad. Eri. Oñ.	Hernani-Zarautz	Zubipen	Bihar 12:00	Jubenak	Oneros-Rodriguez/Itza	Irurri	Gaur 16:00 (2)
Kad. Eri. L.	Hernani-Aloaga	Zubipen	Gaur 10:30	Infantilek	Arizmendi-Insausti/Aurea Saia	Hernanin	Gaur 15:30 (5)
Kad. Mat. L.	Hernani-Mandano	Zubipen	Gaur 12:15	Infantilek	Blanco-Rokondo/Zamala	Hernanin	Gaur 15:30 (3)
Inf. Mat. Oñ.	Lagua Oñak-Hernani	Garmendipen	Bihar 12:45	Infantilek	Etxeiz II-Letia/Mecioz-Etxeiz	Hernanin	Gaur 15:30 (4)
Infantilek	Hernani-Touring	Zubipen	Bihar 10:00	Infantilek	Blanco-Rokondo/Zamala	Hernanin	Gaur 15:30 (3)
Inf. Mat. L.	Vasconka-Hernani	Pukon	Gaur 10:00	Infantilek	Aurrea Saia/Gorostidi-Zugasti	Bidegoien	Gaur 16:00 (1)
Inf. F-8	Hernani-Zarautz	Zubipen	Gaur 09:00	Alebinak	Etxeiz/Perenaia-E.Garmendia	Erresterien	Bihar 10:30 (1)
ERRUGBIA				Alebinak	Tejedor-Fie/Arasarte	Hernanin	Gaur 15:30 (2)
Senior	Santibonka-Hernani	Baldik Alcan	Bihar 12:00	SASKIBALOA			
Senior B	Hernani-Roja	Lardinen	Gaur 16:30	Seniorak	Hernani-Arrikoleta San Sebastian	Hernanin	Gaur 16:45
Mat. Euskal Liga	Le Union-Hernani	Irulan	Gaur 16:30	Jub. 1. urte	CD Internacional-Hernani KE	Hernanin	Gaur 11:45
Kad. (sub18)	Zarautz-Hernani	Astiri	Gaur 11:00	WATERPOLOA			
Eskola	Gipuzkoako Bilkura	Mopabiga	Bihar 10:00	Mutirik	Hernani-Meristas	13:30	Hernanin
ERREMONTA				Neskek	Hernani-Meristas	12:30	Hernanin
Igo partiduak	Otaegi-Larrazaga/Segarra-Labaka	Galarretan	Gaur 16:00				
Master-Fuola	Etxebarri-San Migel/Urbi-Etxebarri III	Galarretan	Gaur 16:30				
3. partiduak	Juaristi-Olazar/Matxin III-Barnetxe IV	Galarretan	Gaur 16:30				
4. partiduak	Juanena-Zubiri/Etxeiz II-Zubizarreta	Galarretan	Gaur 16:30				

LEHENENGO URTEURRENA

Jose Antonio Izquierdo Goikoetxea

2013ko urtarrilaren 10ean hil zen, 47 urte zituela.

-Goian bego-

Agur esan gabe joan zinen
eta gurean utzi duzun hutsunea
egunetik egunera haundiagoa da.
Besarkada bat.

Zure ama: Begoña; anai-arrebak: Montse eta Carlos, Ester eta José; ilobak: Lander eta Nahikari

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den **Urtebetetzeko mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 25ean



III. URTEURRENA Hilario Soraluze Azkune

Gure bihotzean eta oroimenean
jarraituko duzu beti.
Maite zaigu aitona.

ETXEKOAK: Inés, Aloña, Joseba, Iker eta Maddi

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 25ean



**FUNERARIA
ORBEGOZO
ERRAUSKETAK**

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

**Zentrala HERNANI
Latsunbe, 7**

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

TELEFONAK

● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622

● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037

● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103

+ FARMAZIAK ● Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● Gauzez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077



GAUR


Euria eta euria egingo du gaur ere goizetik arratsaldera. Arrats edo gau partean altxerak egingo du. Ipar-mendebaldeko haizeak joko du. Min.10° / Max.12°



BIHAR

Epeldu egingo du pixka bat eta aterai egun guztian. Goizaldean eta iluntzean bota dezake jasaren bat. Mendebaldeko joko du. Min.9° / Max.15°

(euskaltel)



IPUIN ORDUA ASTEARTEAN

Umeentzako ipuin kontaketa asteartean hasiko dira

Sei ipuin kontaketa izango dira aurtengo hilabeteko azken asteartean. Apaxi ipuin kontalaria emango dio hasiera, datorren asteartean.

APAXI ipuin kontalaria izango da asteartean Hernaniko Udal Liburutegian, eta horrekin hasiko dira aurtengo umeentzako ipuin kontaketa. Guztira sei ipuin ordu jarri ditu Udal Liburutegiak, eta kurtsoak irauten duen bitartean ia hilero izango dira, azkeneko asteartean.



Ipuin kontalariak ohitura bihurtu dira Hernanin.

Lau ipuin kontalari izango dira txandan, ikasturtean zehar, ia hilero, apirilean, irailean eta abenduan izan ezik.

Lau ipuin kontalari, 3 urtetik 7 urtera

Umeentzako saioak izango dira, 17:00etatik aurrera, eta 3 urtetik 7 urtera bitarteko

haurrei zuzenduak daude. Lau ipuin kontalari izango dira, txandan, urtarrila, otsaila, martxoak, maiatzak, urria eta azaroak: Apaxi, Lur Korta, Lupe Lekuona eta Maite Franko. II

Urtarrilak 28	Apaxi
Otsailak 25	Lur Korta
Martxoak 25	Lupe Lekuona
Maiatzak 27	Maite Franko
Urriak 28	Maite Franko
Azaroak 25	Lur Korta

IRAGARKI MERKEAK

Etxebizitza eguzkitsua salgai zentroan. Oso egoera onean, 90 m², 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Ilogailua badu. Pana parkera begira. Oso polita. Deitu: 648 225 090

Pixua salgai zentroan, 4 gela, bi komun, sukaldea, egongela-jangela, 100m². Trastelekua eta garajearekin. Erdigunean, altua eta eguzkitsua. Deitu: 699 49 22 35

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



SALESIANOS urnieta
SALESIARRAK

salesianosurnieta.com DBHko Informazio bilera
943 551 789 Otsailak 1, 11:00etan

ELIZATXO Ikastola

Matrikula: otsailaren 3tik 14ra

Non: Elizatxo 9 ☎ 943 557224 (HH-LH)

Ordutegia: 9:00 - 12:30 eta 14:30 - 16:30

Ikastetxea bisitatu daiteke

www.elizatxoikastola.com



Diseinu zerbitzurik behar al duzu?

// Hernaniko Kronikak bere publizitate saila jarri nahi du zuen zerbitzura, zuen elkarte, erakunde edota enpresak iragarki, kartel, aldizkari edota buletin irakurterrazak bezain eraginkorrak plazaratzeko.

ZERBITZU BERAU HONETAN INTERESKUZ KANDEZ GERO, JARRI HARREMANETAN GUREKIN 943 33 08 99 TELEFONOAN EDO [DISEINUAK@KRONIKA.NET](mailto:diseinuak@kronika.net) HELBIDE ELEKTRONIKOAN.

// Beharrezkoa duzuen lan-talde profesionala daukagu. Diseinu editoriala, alegia, liburuen konposizioa eta maketazioa, aldizkariak, katalogoak, hala nola, triptikoak, gidak, iragarkiak, kartelak... balta ere irudi korporatiboaren garapena.

Hernaniko
kronika